Espediente motea: Administrazio kontratazioa
Espediente zenbakia: 2026/KON_IOS_0010

GABONETAKO EKITALDIETARAKO GOZOKIEN HORNIDURA KONTRATUA

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

---

1. HORNIDURAREN DESKRIBAPENA.-

Bermeoko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak ikuskizun desberdinak antolatzen ditu urtean zehar eta Gabonetan, bereziki umeei zuzendutako ekitaldi erakargarri bi dira:

- Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiren agerraldia.
- Urtarrilaren 5ean, Errege magoen kabalgata.

Ekitaldi bietan, gozokiak banatzen zaizkie umeei. Ume guztiak gozokiak jan ahal izateko, guztiak gluten bakoak izan behar dira. Udalak 504 kilo banatzen ditu ekitaldi bietan.

2. EROSI BEHARREKO HORNIDURA.-

Urtero, abenduaren 18an inguruan, udaletxeko eraikin batean, Gizarte eta Kultura etxean edo Kiroldegian, gozokiak jaso behar dira.

Udalak, 504 kilo gozoki behar ditu, honako baldintza hauekin:

- Fruta zaporekoak, ezberdinak, gutxienez 4 zapore.
- Gozoki bigunak, gelatinazkoak,"jelly fruit" motakoak.
- Gluten gabekoak, gozoki guztiak. Ziurtagiria erantsi behar da.

3. - HORNIDURAREN PREZIOA.-

- <u>Horniduraren prezioak</u>

Prezio barruan, gozokiak eta gozokien garraioa sartuko dira. Baita, beharrezko diren birziklatutako kutxak eta gainontzekoak.

CSV: 07EA0018071C00Z7S3F8W8I8E1